

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Kontratazio mahai iraunkorra izendatzea

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 326. artikuluan xedatzen du kontratazio organoek kontratazio mahai baten laguntza izango dutela, baldin eta kontratatzeke eskumena ez badagokio kontratazio batzorde bati. Kontratazio mahai horrek izango du eskumena eskaintzak balioesteko prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio prozedura negoziatuan, berrikuntzarako elkartzeko prozeduran eta 168.1.b) artikuluan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen diren prozedura negoziatuetan.

Toki erakundeei gagozkiela, bigarren xedapen gehigarriak hau xedatzen du:

(7) Kontratazio mahaiaren buru korporazioko kide bat izango da edo bertako funtzionario bat, eta mahaikide hauek: idazkaria edo haren ordezkari lege aholkularitzan diharduen organoaren titularrak, kontuhartzailea eta kontratazio organoak korporazioko karrerako funtzionarioen, lan kontratupekoen eta korporaziorako hautatutako arteen izendatzen dituenak. Mahai horrek, gutxienez, hiru kide izan beharko ditu. Kontratazio mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago. Idazkaria udalbatzako funtzionario bat izango da.

Dagokion kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da nola osatuta dagoen mahaia.

Baliatuz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emandako idazkeran, 21. artikuluan esleitzen dizkidan eskumenak.

Ebazten dut

Lehenengoa.- Legutioko Udalaren kontratazio mahai iraunkorra eratzea.

Bigarrena.- Kontratazio mahaia kide hauez osatuta egongo da:

Mahaiburua: Cesar Fernández de Gamarra Egurrola, Legutioko Udaleko alkate-lehendakaria.

Ordezkoa: Iñaki Lopez de Bergara Astola, 1. alkateordea.

Mahaikidea: María Ángeles Otaola Elortegui, idazkari kontuhartzailea.

Ordezkoa: Purificación Astondoa Ochoa de Echaguen, administraria.

Mahaikidea: Aitor Izaguirre Emilio-Yus, kirol koordinatzailea.

Ordezkoa: Rocío López de Lapuente Díaz de Otazu, ingurumeneko teknikaria.

Mahaikidea: Estitxu Martínez de Iturrate Santxo, euskara eta kultura teknikaria.

Ordezkoa: Yanira Díaz de Aránguiz López de Uralde, liburutegiko laguntzailea.

Mahaikidea: Eneko Ibáñez Gorrotxategi, zinegotzia.

Ordezkoa: Antton Franco Pecina, zinegotzia.

Idazkaria: Aitziber Criado Goikoetxea, administraria.

Ordezkoa: Itziar Berasaluze Bajo, administraria.

Hirugarrena.- Izendapena interesdunei jakinaraztea, eta ALHAOn eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Legutio, 2019ko uztailaren 1a

Alkatea

CÉSAR FERNÁNDEZ DE GAMARRA